

» TELEGRAMA

Udako jaiak badatoz eta horrekin batera kontzertu pila. Beste asko izango dira, baina guri arreta deitu digu Berrizen ekainaren 30ean antolatu dutenak: **Last Fair Deal**, **Niña Coyote** eta **Chico Tornado**, **Grises** eta DJak ariko dira Elizondo plazan **STOP Mikrofilm** festibalak seigarren edizioa beteko du ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean Plentzian: film laburrak, kontzertuak, lehiaketak... **STOP Vodun** taldea zeresana ematen ari da Londresen azkenaldian eta Donostiako **Dabadaban** aukera izango da fenomeno horren zergatia ezagutzeko: uztailaren 1ean da zita **STOP**

» DISKOA

Gogoa eta lana erraldoiak badira...



Iker Barandiaran
@IkerBarandiara



Aspalditik gatoz, urrutira goaz

ASKOREN ARTEAN

Bonberenea ekintzak, 2017

Tolosako Bonberenea Gaztetxearen inguruan eraikitakoa eguneroko lanaren emaitza da. Hogei urte pasa dira Bonberenea izenpean lehen Gaztetxea okupatu zutenetik eta hamabost Bonberenea Ekintzak plataforma egituratu zutenetik. Inguruko talde eta proiektuei zein umezurtz zeuden bidelagunei aukera eskaini zieten kalitatezko estudioa eraiki eta lanak plazaratzeko, bitariko konpromisoa, gertutasuna, gardentasuna eta profesionaltasuna bermatuz. Hala, Tolosako ekimenak lortu du, olatu komertzialetik at egonik ere, zeresana ematen dabilen talde multzoa bere katalogoan egotea. Aurretik kaleratu izan dituzten *Suffle* bildumatan egiaztatu dugu nolako komunitatea osatu duten, eta orain inguruan lanean dabiltzan hogeita bat talderen kantuak batu dituzte, ia guztiak aurretik argitaratu eman gabeak. Ezagunek zein ezezagunek dute trataera bera; horixe eta talde berriei laguntzeko nahia baitira ezaugarri nagusienak, estiloetatik harago.

Bildumako lehen CDa gogorrakoa da doinuak, besteak beste, hardcorea etxearen historiaren alderdi garrantzitsua izan delako. Fer Apoak gidatutako Estricalla horren eredu. Desagertutako Camsa-ren ondoren bizirik dirauen 25th Coming Fire dator gero, eskola zaharreko hardcorearen zaindari. Stanislav izenpean berpiztu da Ladislao hardcore-punka. Umi-

litate da Zarauzko crust-aren oinordeko; eta Anestesia eszena horretako basapizti hilezkorra. Eraso! zazpi bizitzako metal eta rock dotorezia. Humus aurre-Bonberenearen post-rock beteranotasuna. Zea Mays kamaleoien gisa berrasmaten den musikazale amorratu koadrila. Sofa, esperimentazioa eta gaztetetasuna. Anger arrazoi on baten alde hausnarketak dantzan jartzeko konfabulazioa. Eta, azkenik, sistema hau arrakaletatik eraginda ezandarazi nahi duen Matxura.

Bigarren CDak bestelako tonu eta doinuak ditu bere baitan: gazteak errimaz esnatzen dituen -a ze marka!- Glaukoma. Luzaroan gerizpean egonagatik distiratsu eta emankor darraien Libe. Ardo gisa onduta eta jantzi berri rockeroarekin Han! Bertsoetatik rockerako ibilbidea zitzu bizian egin duen Bi Bala. "Gutxiagorekin gehiago" filosofia barneratutako zakur zaharrak, Belarmiñak gisa. Historiako lezioak modu itsaskorrean gure egiten maisu Fiachras. Dantza, parranda eta adarjotzea batzen duen Ze Esatek. Belaunaldiz belaunaldi espiritu gazteari eusten dion Atila y Los Unos. Bonberenea Txaranga eta Sofabeltz: estilo eta formatuetatik harago, sorkuntza askea! Goazen dantza iraultzera: Anai Arrebak. Eta adin zein bestelako egitura zurrunei barre egiten dien Pirritx, Porrotx eta Marimotots su txikiei duten garrantzia aitortuz. ■